

OSAKIDETZAREN 2018KO BALANTZEA

Hauek izan dira **urteko une garrantzitsuenak**:

- Minbizia prebenitzeko programak sendotzea eta, horretarako, **Umetoki Lepoko Minbiziaren Biztanleriaren Baheketa Programa** ezartzea; programa horrez gainera, badaude beste baheketa-programa bi: bularreko minbiziaren baheketa eta kolon eta ondesteko minbiziarena. Gainera, minbizitik bizirik irteteko tasak igotzeko ahalegina egiteko politiken barruan, nabarmentzekoa da **2018-2023 Plan Onkologikoa** abiarazi dela, Onkologikoa Osakidetzari lotzeko akordioa eta Amancio Ortega fundazioarekin hitzarmena sinatu dela – horren bidez **bost azeleragailu lineal eta mamografo bat** eskuratu dira–.
- **2020ko Arreta Soziosanitarioaren lehentasun estrategikoen** aurkezpena, osasunaren ekitatean aurrera egiten jarraitzeko eta bereziki kolektibo ahulenei arreta ematen jarraitzeko.
- **Pazientearen Segurtasun Estrategiaren** onespena; sei ekintza-ildo berri jaso ditu pertsonentzako arriskuak murrizteko.
- **2020ko Euskadiko Lehen mailako Arretarako Estrategiari** buruzko oinarri-dokumentuaren aurkezpena.
- **Eibarko Ospitalea** abiaraztea; 75.000 pertsonari arreta emateko gaitasuna du, eta 31 milioi euroko inbertsioa.
- **Urdulizko Ospitaleko bloke kirurgikoa** eta ospitalizazio kirurgikorako planta.

- Galdakaoko Unibertsitate Ospitaleko, Basurtuko eta Gurutzetako **hemodinamikako areto berriak**.
- **Erakunde sanitario integratuak (ESI) arautzeko dekretuaren** onespena, Euskadin zabalduko asistentzia-antolaketarako eredu berria finkatzeko.
- **Errezeta elektronikoen** elkarreragingarritasuna; horren bidez, Osakidetzako osasun-txartela gainerako autonomia-erkidegoetako botiketan erabil daiteke.
- Biocruceseko **eraikin berriaren inaugurazioa**, 20 milioi euro inbertitu ziren eta, Bioaraba, Biodonostia eta Kronikgune institutuekin batera, eraikin berria inauguratzean Euskadiko osasun-ikerketako institutuen sarea ixten da.

2018KO OSAKIDETZAREN JARDUERAREN ONDORIOAK


Osakidetzako zuzendari nagusiak, Asistentzia Sanitarioko zuzendariarekin batera, **2018. urteko jarduera laburtzen duten adierazleak** aurkeztu ditu. Ondorio nagusien artean honako hauek nabarmendu daitezke:

LAGUNTZA-JARDUERARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Osakidetzak, egunero, 94.000 paziente baino gehiagori ematen die arreta; 60.000ri lehen mailako arretan eta 34.000ri ospitale-arretan. Alegia, **urtean 16 milioi kontsulta baino gehiago**. Erabiltzaileen % 95etik gorak positiboki baloratzen du asistentziaren kalitatea, eta % 60k baino gehiagok bikain.

Kontsultak



GUZTIRA



2018an eginiko jarduera kirurgiko programatua % 3,7 handiagoa izan da azken urtean. Era berean, % 28ko gorakada egiaztatu da azken bost urteotan, bereziki 65 urtetik gorakoetan, eta programatutako interbentzioen % 50 dira. Osakidetzak lortu du azken urtean % 24,5 areagotzea **Konplexutasun Handiko Prozedurak operazio-gelatik kanpo**.


Ebakuntza kirurgikoak

Prozedura ez-kirurgikoak (PEK) eta konplexutasun handikoak



Ospitaleetako egonaldiak murrizten doaz, pixkanaka, zainketen eraginkortasunean eraginik izan gabe. Ospitale-alta jaso eta hurrengo 30 egunean berriro ospitaleratzeko kasuak baxuak dira eta egonaldiak luzeagoak ziren garaietako antzekoak.


Osakidetzak, egunean, 5.287 larrialdiri ematen die arreta. **Etengabeko Arretako Guneetan (EAG) hartutako larrialdi-kopuruak lehenengoz gainditu du ospitale-zerbitzuetakoa**; horrek esan nahi du EAGak egokiago erabiltzen dituztela herritarrek. EAGetako 100 larrialditatik 92 “in situ” ebazten dira, ospitalera joateko beharrik gabe.



Larrialdi-kopurua % 7,9 areagotu da 2018an; hori dela eta, egunean 1.208 deiri eman zaie arreta eta egunero 507 irteera egin dira ambulanzian.

Osasun mentalean arreta jaso duen paziente-kopurua areagotu egin da % 2,1 azken urtean. Gaixotasun horietan (depresioa, antsietatea...) biztanleriaren zahartzeak eta horiekin lotura duten gaixotasun mentalek ere eragiten dute. Hori dela eta, Osakidetzako Osasun Mentaleko Sareak 2018an milioi bat kontsulta eta prozedura baino gehiago artatu ditu.

Osasun mentaleko pazienteen kopurua




C Hepatitisaren programak 2018an 17 milioi eurotik gorako aurrekontua izan du, eta, aurten, 7.103 paziente artatu ditu, eta sendatzea % 97koa izan da.


Odol-emateen bilakaera zaindu behar da. Euskadi autosufizientea da Osakidetzak **egunean 345 donazio** eskuratzea posible egin duten biztanleak dituelako. 2018an, donazioek gora egin dute, nahiz eta azken urteotan beheranzko joera izan duten. Baina oraindik ez dira lortu 2008ko eguneko 393 donazioak, ez eta 2014ko 351 donazioak ere.

2018an, 64 organo eman dira milioi biztanleko. Tasa hori Osasunaren Mundu Erakundeak bikaintzat ezarritako 40 donazioetatik gorakoa da, eta Estatuko zein Europar Batasuneko beste herrialdeetako batez bestekoa baino handiagoa da argi eta garbi, argitara emandako azken datuen arabera.


Odol-emateak



Organoen donazioa



Bularreko eta koloneko minbizien detekzio goiztiarrerako baheketa-programen bidez, 659 eta 2.750 kasu detektatu dira, hurrenez hurren. Hori funtsezko gakoa da gaixotasunetik bizirik irteteko; izan ere, oraintsu egin den azterlan baten datuen arabera, koloneko minbiziaren baheketak % 20 handitzen du kaltetuen biziraupenaren ratioa.



2018an onetsitako **pazientearen segurtasun-estrategiak** eragina du Osakidetza profesionalak beren eguneroko lanean ezagutzen dituzten

gorabeheren berri emateko prebentzioaren garrantzian. Informazio horren bidez, neurri egokiak ezar daitezke, gorabeheren tasa murrizteko.



ITXAROTE-ZERRENDA

2018an Osakidetzako **Kirurgiako Itxarote Zerrendan batez besteko atzerapenean egonkortasuna** antzematen da; 49,1 egunekoa da, eta pixka bat handiagoa paziente-kopurua, 17.795 guztira, eragile demografikoak eta teknologikoak direla eta; izan ere, horiek direla eta, ebakuntza kirurgikoa behar duen pertsona-kopurua handitzen doa.

<i>Kirurgiako Itxaron Zerrenda</i> <i>Lista de Espera Quirúrgica</i>	Paziente kopurua Nº Pacientes			Batez best. Atzerapena Demora Media	
	2017	2018	%	2017	2018
Araba ESla	3.101	3.006	-3,1%	51,0	49,4
Donostialdea ESla	3.466	3.337	-3,7%	49,6	49,2
Goierrri-Urola Garaiko ESla	671	734	9,4%	52,6	54,6
Bidasoko ESla	594	600	1,0%	51,2	50,5
Debabarreneko ESla	570	606	6,3%	47,7	47,5
Alto Deba ESla	373	341	-8,6%	43,9	33,6
Ezkerri-Enkar.-Gurutze ESla	2.514	2.495	-0,8%	40,2	40,2
Bilbao-Basurtu ESla	2.946	3.210	9,0%	54,7	54,9
Barrualde-Galdakao ESla	2.001	1.956	-2,2%	51,6	51,2
Barakaldo-Sestaoko ESla	812	807	-0,6%	53,1	53,4
Uribe ESla	233	703	201,7%	38,4	43,1
GUZTIRA TOTAL	17.281	17.795	3,0%	49,6	49,1

<i>Kirurgiako Itxaron Zerrenda</i> <i>Lista de Espera Quirúrgica</i>	Paziente kopurua Nº Pacientes			Batez best. Atzerapena Demora Media	
	2017	2018	%	2017	2018
Cirurgia General	2.951	3.356	13,7%	49,0	49,7
Oftalmologia	4.146	4.052	-2,3%	39,3	40,5
Otorrinolaringologia	1.321	1.275	-3,5%	51,9	50,5
Traumatologia	4.931	5.094	3,3%	59,8	58,3
Urologia	1.043	1.066	2,2%	44,2	44,4
Tokoginekologia	610	790	29,5%	39,9	43,3
Gainerako zerbitz./Resto de servicios	2.279	2.162	-5,1%	50,7	45,8
GUZTIRA TOTAL OSAKIDETZA	17.281	17.795	3,0%	49,6	49,1

Informazioa hiru lurralde historikoetan banatzen badugu, honako hau da emaitza:

- **Araba:** murriztu egin da paziente-kopurua eta hobetu batez besteko atzerapena.
- **Gipuzkoa:** Egonkortasuna, eta Debagoieneko ESlan murrizketa batez besteko atzerapenean.
- **Bizkaia:** Egonkortuta dago batez besteko itxarote-denbora, Uribeko ESlan ezik. Bertan, paziente-kopuruak gorakada izan du ere zerbitzuak irekitzen joan diren neurrian.

Nabarmetzen jarraitzen dute, paziente-kopuruari dagokionez, Traumatologiako eta Oftalmologiako espezialitateek, biztanleriaren zahartzeari dagozkion beharrek oso lotuta.

Batez besteko atzerapena dela eta, Traumatologia nabarmetzen da, baina hobetu egin da, aurreko ekitaldiaren aldean.

<i>Kontsultetako Itxaron Zerrenda</i> <i>Lista de Espera Consultas</i>	Paziente kopurua Número Pacientes			Batez best. Atzerapena Demora Media en Días	
	2017	2018	%	2017	2018
Araba ESla	16.015	17.628	10,1%	26,9	28,8
Donostialdea ESla	14.116	16.309	15,5%	17,1	30,2
Goierni-Urola Garaiko ESla	3.794	3.694	-2,6%	35,0	34,7
Bidasoko ESla	2.684	2.348	-12,5%	25,7	21,4
Debabarreneko ESla	3.164	2.791	-11,8%	24,6	33,6
Alto Deba ESla	1.607	1.679	4,5%	19,8	21,2
Ezker.-Enkar.-Gurut. ESla	16.809	15.837	-5,8%	38,9	41,1
Bilbao-Basurtu ESla	17.882	18.210	1,8%	37,4	39,0
Barrualde-Galdakao ESla	12.864	13.881	7,9%	24,6	29,2
Barakaldo-Sestaoko ESla	4.552	4.853	6,6%	28,1	28,2
Uribe ESla	1.484	4.013	170,4%	18,9	31,6
GUZTIRA TOTAL	94.971	101.243	6,6%	29,3	33,0

Kanpo Kontsulten Itxarote Zerrendan gorakada moderatua ikusi da paziente-kopuruan eta batez besteko atzerapenean, 33 egunekoa da.


<i>Probetarako Itxaron Zerrenda</i> <i>Lista de Espera Pruebas</i>	Paziente kopurua Número Pacientes			Batez besteko Itxaron Denbora	
	2017	2018	%	2017	2018
Araba ESla	1.713	1.284	-25,0%	14,1	20,5
Donostialdea ESla	2.346	1.946	-17,1%	7,6	12,0
Goierni-Urola Garaiko ESla	317	1204	279,8%	10,0	7,4
Bidasoko ESla	385	434	12,7%	10,0	7,0
Debabarreneko ESla	592	285	-51,9%	7,9	9,2
Debagoiena ESla	441	535	21,3%	11,4	12,4
Ezker.-Enkar.-Gurut. ESla	3.125	2.994	-4,2%	16,6	13,5
Bilbao-Basurtu ESla	4.001	6.157	53,9%	11,1	11,9
Barrualde-Galdakao ESla	5.008	4.348	-13,2%	18,1	21,5
Barakaldo-Sestaoko ESla	57	114	100,0%	1,6	1,1
Uribe ESla	873	1060	21,4%	11,6	9,0
GUZTIRA TOTAL	18.858	20.361	8,0%	13,1	14,3

Proba Diagnostikoen Itxarote Zerrendan egonkortasuna antzematen da batez besteko itxarotean eta gorakada moderatua paziente-kopuruan.

Azkenik, itxarote-denbora adierazleei buruzko datuak autonomia-erkidego guztietako baxuenak direla nabarmendu behar da, eta Estatuko batez bestekoaren oso azpitik daudela.

JASANGARRITASUNARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Osasun-arloko aurrekontu publikoak, per capita, % 3,7 egin du gora 2018an, eta, 5 urteko eboluzioan, % 9 baino gehiago. Euskadin, horrela, Estatuko batez bestekoa baino % 32 handiagoa da, eta autonomia-mailan per capita aurrekontu publiko altuena du. **Osakidetzaren aurrekontua 2018an 2.799 milioi eurokoa izan da**, % 2,5 handiagoa. Azken 5 urteotan, % 11,6 hazi da. Aurrekontu horren % 67,6 langileen gastuei dagokie.



Inbertsioetan, 2018an, % 39ko gorakada egon da; 2017an 59 milioi izan ziren eta, 2018an, 82 milioi. Bereziki hazi dira osasun-teknologiako ekipamenduetakoa (% 106ko gorakada), informazio-sistemetakoa (% 72ko gorakada) eta obra berrikoa (%17 handiagoa).

Egitura-plantillan, 2018an, 97 pertsona gehiago dira. **Azken 5 urteotan, ikuspegi ebolutiboan, % 3 hazi da** (695 pertsona).

Osakidetzak, 2018an, azken urteotako LEP handiena egin du. **3.335 plaza, 86 kategoriatakoak**, eta 95.000 hautagai baino gehiagok jo dute deialdi horietara.


Baja duten lan-istripuen kopuruak behera egin du % 16,7, 2015etik.

Emakumea Osakidetzako plantillaren % 78 da. Emakumeen presentzia, azken 5 urteotan, zuzendaritza-postuetan hazi da, batez ere (2014an emakumea % 56 zen eta 2018an, % 60), bai eta **osasan-arloko lizentziadunen postuetan** ere (2014an % 57 eta 2018an % 62). 2019an, **Osakidetzako Berdintasun Plana** onestea aurreikusten da.

Osakidetzan euskararen derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten postuak, guztira, 10.368 dira, **postu guztien % 38,9**, eta, horrela, erakundea hurbildu egiten da 2020rako aurreikusitako % 40ra. Plaza horiek betetzen dituzten pertsonen % 72k hizkuntza-eskakizuna egiaztatu du, eta erakunde osoan 10.368 pertsona daude hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta.


BERRIKUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Nabarmenezkoa da **herritarrek oso ongi onartzen dituztela Osakidetza ezartzen ari den onlineko zerbitzu berriak**. Zerbitzu horiek erosotasun handiagoa dakarte, izan ere, denbora aurrezten da, ez da joan-etorririk egin behar beharizanik ez badago eta zerbitzu horietara berehala jo daiteke. Horrela, web-hitzorduak bikoiztu egin dira azken 5 urteotan, eta 2018an 2 milioitik gorakoak izan dira. **Osasan-karpetak** 8.261 erabiltzaile zituen 2014an, eta 53.973 2018an. Eta paziente kronikoen **telemonitorizazioak** 145 paziente zituen 2014an eta 705 2018an. Azkenik, **errezeta elektronikoaren** bidez, 35 milioi banaketa egin dira eta, horien artean, 800.000 baino gehiago euskal herritarrek Euskaditik kanpora egin dituzte, funtzionaltasun hori aplikatu den lehen urtean.



Arretaren eta kudeaketaren arloko berrikuntzaren eremuan aholku sanitarioa nabarmendu behar da. 2014an 128.000 dei jaso ziren eta, 2018an, 186.000. Kopuru horretatik, **% 80 zuzenean erantzun zituen** zerbitzu hori ematen duen erizainen taldeak.

Nabarmentzekoa da Aholku Sanitarioiak egiten dituen segimendu-programa guztietatik aringarriei buruzkoak nabarmentzen direla, ia % 19 areagotu baitira.



AHOLKU SANITARIOA: ARRETA-PROGRAMAK CONSEJO SANITARIO: PROGRAMAS DE SEGUIMIENTO	2014	2015	2016	2017	2018	% 2017-18
Aringarrietako Pazienteen jarraipena egitea etxean Seguimiento de Pacientes Paliativos en domicilio		20.967	33.523	59.838	71.051	18,7%
Kirurgia Handi Ambulatorioko pazienteen jarraipena egitea Seguimiento de los pacientes de Cirugía Mayor Ambulatoria			58	421	913	116,9%
Tabakoarekiko Mendekotasuna Gainditzea Apoyo a la Deshabitación Tabáquica		608	612	506	354	-30,0%
Praktika Aurreratuko Erizaneiei laguntzea Apoyo a las Enfermeras de Práctica Avanzada		1.774	2.736	3.036	3.456	13,8%
Etxeko Ospitalizazioari laguntzea Apoyo a la Hospitalización a Domicilio				342	810	136,8%
ICHOM-Bizi-kalitatea IKTUSA eta Prostatako minbiziaren Programako pazienteei jarraipena egitea Seguimiento de pacientes Programa ICHOM- Calidad de Vida ICTUS y Ca.Próstata				287	297	3,5%
BETH-ON Tele-alarma	23.817	29.718	31.350	35.183	38.042	8,1%

I+G+b jarduerak hazkuntza garrantzitsua izan du 2018an; % 3,4 hazi dira abian diren proiektuak. Ikuspegi ebolutibotik, nabarmentzekoa da azken bost urteotan **proiektu-kopurua 2,5 aldiz handiagoa dela**; 2014an 544 ziren eta, 2018an, 1.732.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 25a